

## ZAINDU ZURE GILTZA DIGITALAK

‘Smishing’, ‘phishing’, ‘vishing’, ‘baiting’... Gure Internet zerbitzuen pasahitzak lapurtzen saiatzeko teknikak ugariak izan arren, komeni da gogoan izatea gutako edozein edonon izan daitekeela halako baten biktima.

Halako lapurreten ondorioak oso ezberdinak dira batetik bestera. Gerta daiteke **lapurrek** gure sare sozial bateko profilaren kontrola eskuratzea, **adibidez**. Edo, erabiltzaile eta pasahitz berak erabiltzen baditugu beti, gure sare sozialen, posta elektronikoaren, banku elektronikoaren, laneko artxiboen eta abarren kontrol osoa lortzea. **Esan** bezala, kontrol hori produktu jakin baten publizitatea egiteko aprobetxatuko dute; edo gure lagun, kontaktu edota laneko **bezeroei** ere lapurtzen saiatzeko; gure artxiboak, batez ere lanekoak, "bahitu"<sup>1</sup> eta haien truke dirua eskatzeko; edo, zuzenean, guk ordaindu beharko ditugun erosketak egiteko zein gure kreditu txarteletatik edo banku kontuetatik dirua ateratzeko. Guretzat, gure **lagunentzat** eta gure bezeroentzat arrisku handia da hau.

Lapurreta horiek ekiditeko<sup>2</sup> tresnarik eraginkorra sen<sup>3</sup> ona da. **Ongi** gorde behar ditugu gure pasahitzak. Nahiz eta hamaika bider irakurri eta entzun dugun, komeni da errepikatzea: bankuek sekula ez digute pasahitza e-postaz edo SMS bidez eskatuko. Bestalde, zure gogoko sare sozialean ‘onegia, egia izateko’ **moduko** zozketa edo sariren baten berri ikusten baduzu..., zure datuak eskuratzeko amua<sup>4</sup> besterik ez da izango, seguruenik.

Gure **pasahitzekin** ere komeni da zuhur<sup>5</sup> jokatzeko. Lehenengo eta behin, ezer egin baino lehen, pentsatu **apur bat** eta sekula<sup>6</sup> ez erabili ‘abcde’, ‘qwertyuiop’, ‘12345’ eta antzeko pasahitzak. Honezkero<sup>7</sup>, sistema gehienetan eskatzen digute, arrazoiz eskatu ere, gure pasahitzek letra larriak eta xeheak, zenbakiak eta karaktere bereziak nahastea. Ongi egin den pasahitz bat ez da erraz pirateatzen.

Zerbitzu bakoitzean pasahitz ezberdina erabiltzea ere komeni da. Aholku gisa, pasahitzak baino hobeto, ‘pasaesaldiak’ erabil ditzakezu, zailagoak direlako asmatzen, eta errazagoak gogoratzen. Baina esaldia erabiliz gero ere, izan dadila ezberdina zerbitzu batetik bestera, zerbitzutik **zerbitzura**.

Azkenean, kontua erraza da: etxeko giltzak ez galtzeko kontuz ibiltzen garen moduan, gure giltza digitalak ere behar bezala zaindu behar ditugu, hori egin ezean gure segurtasun digitala arriskuan egon baitaiteke.

*Aizu!* aldizkari digitala, 2022/11/22 (MOLDATUA)

(1) *bahitu*: secuestrar. (2) *ekiditeko*: para evitar. (3) *sen*: buen sentido; *sen ona*: sentido común. (4) *amua*: anzuelo. (5) *zuhur*: prudentemente, juiciosamente, sensatamente. (6) *sekula*: nunca; *sekula ez*: nunca. (7) *Honezkero*: Ya (en la actualidad), para este momento.

• **1. ATALA**

1. Eman hitz hauen kasua eta numeroa: **lapurrek** (4), **bezeroei** (8), **lagunentzat** (11), **pasahitzekin** (17), **zerbitzura** (23). (1 puntu)

**Ondoko bi ariketetatik bat aukeratu:** (2 puntu)

2. Testuinguruan egokia den sinonimo bat eman: **adibidez** (5), **esan** (7), **ongi** (12), **modu[ko]** (15), **apur bat** (18).

3. Berridatzi esaldi hauek:

- "pasahitzak lapurtzen saiatzeko teknikak ugariak izan arren" (1-2) (nahiz eta \_\_\_\_\_)
- "Nahiz eta hamaika bider irakurri eta entzun dugun" (13) (\_\_\_\_\_ ba-\_\_ ere)
- "Ongi egin den pasahitz bat" (20) (\_\_\_\_\_ -iko \_\_\_\_\_)
- "zailagoak direlako asmatzen" (22) (zeren eta \_\_\_\_\_ bait-\_\_\_\_\_)
- "gure segurtasun digitala arriskuan egon baitaiteke" (25) (\_\_\_\_\_ eta)

• **2. ATALA**

HIRU GALDERA AUKERATU BOST HAUEN ARTEAN:

- Testuaren ulermena. Zertarako bahitzen dituzte lapurrek gure artxiboak, batez ere lanekoak? (1 puntu)
- Testuaren ulermena. Nahiz eta hamaika aldiz entzun dugun, zer da errepikatzea komeni dena? (1 puntu)
- Testuaren ulermena. Nola jokatu behar dugu pasahitza aukeratzeko orduan? (1 puntu)
- Testuaren ulermena. Zer esan nahi du "pasaesaldiak" asmatu behar ditugula esaten denean? (1 puntu)
- Testuaren ulermena. Zer gerta daiteke gure giltza digitalak behar bezala zaintzen ez baditugu? (1 puntu)

• **3. ATALA**

Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

Hauek hartuko dira kontuan zuzentzeko orduan: enuntziatuan eskatutakoarekiko egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasun gramatikal, lexiko eta ortografikoa, eta baita aurkezpena ere.